

8. JARDUERA KABLEAK

Jarduera nagusia janaria banatzea da, argi eta garbi. Helburu nagusia ikastoletako jantokietako janari soberakinak helaraztea da, beti egoera onean egonda, Horrela, bigarren bizitza bat eman diezaiokegu norberaren egoera ekonomiko edo sozialagatik egunero janari beroa onartu ezin duten pertsoneri.

Janariaren enpaketatzea garrantzitsua da. Platera prestatzea, dena batera eraman eta hartzaileek banatu beharrean, paketeetan sartzeta, lanerako aurrezpena izango litzateke haientzat, eta, horrela, prest eta bero-bero iristsiko dira banatzeko, haiek zer eginik izan gabe.

Boluntarioritza gure enpresak bultzatzen duen beste jarduera bat da. Enpresa ikastolako ikasleek janari-tupperrak prestatzen laguntzera bideratuta dago, eta ez kontratatutako jendea. Ikasleek beraiek aurkeztea nahi dugu, bazkari osoa enpaketatzeko, lan egitera behartuta sentitu gabe.

Ikasleez gain, ikastoletako guraso eta irakasleek parte hartzea gonbidatzen ditugu, modu batera edo bestera. Adibidez, janari-tuppereak garraiatzen laguntzen, edo janaria banatzen. Eta entrega-kalitatea agian berdina ez bada ere, horrek lagunduko du ikastolako pertsonen ez ezik kanpoko pertsonen ere enpresa honek aurrera egiten lagun dezaten.

Garrantzitsua ez iruditu arren, jatekoaren prestaketa ere beharrezkoa da. Baliteke ikastola guztietan ez izatea sukalde propioa eta janaria kanpotik etortzea; baina janari horren jatorria edozein dela ere, egoera onean dauden bitartean, banatzeko prest egongo gara.

Janaria egoera onean mantentzeko, oso garrantzitsua da janaria ongi gordetzea. Oso nabarmena da janaria bere tenperatura egokian mantentzea, gaizki jar ez dadin; izan ere, baliteke norbaiti egoera txarrean dagoen janaria iristea eta inolako momentuan onartuko ez ditugun ondorioak gertatzea. Horrekin batera, janaria ondo mantentzea eta kalitate-kontrola egitea ere funtseskoa da.

Hori dela eta, jarduera horiek guztiak inportanteak dira gure proiektuari ekiteko orduan; izan ere, jarduera, berrikuspen eta gainerako ekintza horiek gabe, ez litzateke posible izango hau aurrera eramatea, eta ezin izango genuke laguntza eskaini.